

“Elkarri on” kanpaina abiarazi du Atzegi elkarteak Buruntzaldean

Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarteak argazki edo “selfie” bat egin eta bidaltzeko deia egin die eskualdeko herritarrei.

Elkarri on egiten diete pertsonak, adimen urritasuna izan edo ez. Harreman oro aberatsa izaten da eta Atzegiko en kasuan sinetsita daude hori horrela izaten dela. Kanpaina hori asteartean aurkeztu zuten Lasarte-Orian, bertako eta Andoaingo alkatearekin. Bi udaletxe-etan ere Atzegiko kideak lanean izan dira, eta hain zuzen ere esperientzia hori gizarteratu nahi izan zuten bai Barrio Lasarte-Oriako alkateak eta baita Carre-re Andoaingo alkateak ere.



Ana Carrerek kanpainarekin bat egin zuen selfie bat ateraz Atzegiko kide batekin.

Dagoeneko 609 703 706 telefono zenbakira Atzegiko kide batekin ateratako argazkia bidaltzeko kanpaina zabalik da. Ohiko sare sozialen bitartez ere argazkia bidal daiteke. Atzegi aurtengo kanpainan pertsona hauek gizartean duten paperari buruz hausnarketa berria gizarteratu nahi du, “adimen urritasuna duten pertsonak zerbitzu-hartzaile edo gure laguntza edo elkartasuna jaso nahi dutenen modura ikusten ditugu beti. Gogoratzen al gara noizbait gizar-teari eskaintzen dioten guztiaz, ematen dizkiguten baloreez?”. Hausnarketa horretatik dator aurtengo kanpainarako lelo nagusia, “Elkarri on” delakoa. Gaur da eguna, esaterako, lan munduan txertatzen ari direla, eta kasu gehienetan esperientzia oso positiboa izaten ari da.

[ESKUALDEA, 7. ORRIALDEA]

Odol emaileei esker ona

Igande honetan Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak Andoaingo eta Urnietako odol-emaile garrantzitsuenen intsigniak eta diplomak banatuko dizkie.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Zer egin eraso sexisten aurrean?

Silvia Arevalo andoaindarrak ikastaroa eskainiko du. Egun hauetan amaituko da izena emateko epea.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Gazte eguna Andoainen



Egun osoko ospakizunaren lau irudi nabarmenenak.

[ANDOAIN, 6. ORRIALDEA]

Egunkaria auzia behin betiko itxita



Torrealdaik hartu zuen hitza, “pozik eta lasai” zeudela adierazteko.

Egunkaria auzia behin betiko artxibatu zutela jakin zenean, Egunkaria auziko auziperatuek eta Egunkariako kideek eskertza ekitaldia antolatu zuten aurreko ostiralean Martin Ugalde kultur parkean. **Joan Mari Torrealdaik** hartu zuen hitza hamaika urteren ostean, “pozik eta lasai” zeudela adierazteko. Auziperatuen izenean eskerrak eman zizkien gerturatu ziren guztiei eta, batez ere, euskal

gizar-teari, “dena gutxi iruditzen zaigu, dena motz geratzen zaigu, euskal gizar-teari eskerrik asko esan behar diogun-ean, hemen zaudeteno eta milaka askori. Nola esan kataluniarrei ere eskerrik asko, jaso dugunaren neurri berean? Ezin. Beti labor geratuko ginateke”. Agerraldira euskalgintza eta politikagintza alorretako ordezkariak hurbildu ziren.

[ESKUALDEA, 8. ORRIALDEA]

txan magoa

Urriak 26, igandea

Sarobe

12:00etan. Sarrera: 3 €

Aurresalmenta:

Lekaio Kultur etxea eta Sarobe

mundu magikoa

★ ikuskizuna ★

Gorazarre ekitaldia Urnietako odol emaileei

Postontzia

Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak

“Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak bere odol-emaile garrantzitsuenei intsigniak eta diplomak banatuko dizkiete datorren igandean -urriak 26-, Oianume sagardotegian. Intsignia, diploma eta garaikurrak, 25, 40 eta 50 aldiz odola eman duten emaileei emango zaizkie. Horrez gain, odol emaile bikoinei omenaldia ere eskainiko zaie (60 aldiz odola eman duten emakumeei eta 70 aldiz odola eman duten gizonezkoiei).

Aurtengo edizioa Lasarte-Oriako delegazioak antolatuko du eta bertan Aia, Andoain, Anoeta, Asteasu, Be-

rastegi, Billabona, Hernani, Ibarra, Irura, Orio, Tolosa, Urnieta eta Usurbilgo delegazioak parte hartuko dute.

Egitaraua:

13:15 Odol emaileei harrera.
13:30 Domina, diploma eta garaikurren banaketa.
14:30 Bazkaria Oianume Jaretxean. Prezioa: 36 euro.

Urnietako odol emaileak

Zilarrezko dominak:
Julian Aguirre Nuñez
Rosa Elozegi Beloki.
Mikel Izagirre Rekondo.
Jon Martin Sarasua Solaun.
Simon Urbizu Telleria.
Urrezko dominak:
M^a Carmen Diez Alonso.
Carlos Alamo Pineda.

Mendekotasuna duten pertsoneen familiei oharra

Urnietako Udalak, Gizarte Zerbitzuen sailaren bidez, mendekotasuna duten adineko pertsonen eta pertsona horiek etxean zaintzen dituztenei buruzko lan bat burutuko du. Udalak iragarri duenez, “asmoa mendekotasuna duen adineko pertsona-

ren nahiz zaintzaileen iritzia jasotzea da, euren bizi-kalitatea hobetzen lagundu ahal izateko”. Informazio hori gizarte langileek bilduko dute, etxetik etxeko bisiten bidez. Aldez aurretik telefonoz harremanetan jarriko dira, eguna eta ordua zehazteko.

Sanmielei buruzko iritzia jasotzeko inkesta

Sanmielak pasa ondoren, Udalak jaien inguruan iritzia jasotzeko inkesta banatu du etxe guztietara. Bizilagunek hainbat aukera dituzte galdegegia Udalari bideratzeko: batetik, orria bete eta Bertan bulegoan, Lekaion edo Saro-

ben utz dezakete; bestetik, inkesta-orria formatu digitalan bete daiteke eta internet bidez bidali, urnieta.org atarian. Inkesta guztiak jasotzeko epea urriaren 24an amaituko da. Ostiral honetan, alegia.

San Markoseko zabortegia behin betiko itxi dute



San Markoseko mankomunitateak zabortegia behin betiko itxi duela adierazi zuen, asteartean egin zuen agerral-

diarekin. Urte askotan inguruak jasan dituen inpaktu bisualak eta usainak desagertu egin dira.

Ostiral honetan urteurreneko ekitaldia ospatuko dute

Salesiar ikastetxearen urrezko ezteiak



Salesiar ikastetxea 1972an.



Salesiar kongregazioak eta ikastetxeko lantaldeak Urnietako salesiar ikastetxearen urrezko ezteiak ospatuko dituzte, ostiral honetan. Antolatzaileek iragarri dutenez, ekitaldia aitortzarako eta oroitzapenerako izango da, baina baita etorkizunera begiratzekoa ere. Urte hauetan guztietan urnietar ugari igaro da ikastetxetik.

“1951 urtean, salesiarrek, apaizgai berrien heziketarako ikastetxe bat eraikitze beharra ikusi zuten. Eta Gipuzkoan egitea erabaki zuten, Juan Manuel Beobide salesiar apaizari emanez lan horren ardura. Honek, Zaragüeta-Aristizabal familiaren diru-laguntzari esker 1957ko urtarrilaren 16an Elketa baserria erosi zuen bere 119.017 m²ko lursailarekin.

Ez ziren izan haiek urte errazak eta 1959ko azaroan diru-faltagatik obra gelditu beharra izan zuten. Baina *Aita Beobide* ez zen geldirik egotekoa, eta lortu zituen ongile berriak. Hauen diru ekarpenei esker, lanak berriz hasi zituzten; aipatzekoa da, Eduardo Atxaga eta Ramon Izagirrek burutu zutela arotz lana.

Horrela, 1964ko urriaren 15ean Enrique María Arrieta zuzendari zela eman zitzaion hasera hezkuntza jarduerari

“1964ko urriaren 15ean Enrique María Arrieta zuzendari zela eman zitzaion hasera hezkuntza jarduerari 10 irakasle eta 64 apaizgairekin”

10 irakasle eta 64 apaizgairekin. Ondorengo urteetan, mekanikako tailerra, ukui-lua, eliza, antzokia, futbol zelaia, frontoia, Pake Leku egoitza, igerilekua, eta abarrek ikastetxea osatuz joan zen. 1967ko abenduan Lanbide Eskola Baimenduna izatera iritsi zen, eta horrek ekarri zuen urte haietan ikastetxeko geletan elkarrekin izatea, barneko ikasleak ziren apaizgaiak, eta Batxilergoa eta Lanbide Heziketako ikasketak egiten ari ziren Urnieta eta inguruko herrietako ikasleak”.

Urnietako erretratu zaharrak
Argazki liburua



ALBERT FUENTES ARKITEKTOAREN LANA IZAN DA AUKERATUA

Plaza berriaren lehen urratsa

Udalak lehiaketara eraman zuen plaza berriaren eraikuntza, baina azken erabakia herritarren esku utziz. Abiapuntua oso zehatza zen: oinezkoen zuzenduriko gunea behar du izan, autorik gabekoa.

Lehiakideen artean hiru finalista sailkatu ziren, eta bakoitzak egin-dako proposamena aurkeztu ondoren, herritarrek Albert Fuentesen egitasmoa lehenetsi dute.

Laurehundik gora herritar Bertan arreta bulegotik igaro ziren bozka ematera, urriaren 9tik 11ra bitartean. Zehazki, 430 bozka zenbatu zituzten. Zenbaketa urriaren 11n egin zuten, hiru arkitektoak bertan zirelarik. Horra emaitzak:

- Irabazlea: Albert Fuentes. Guztira 186 bozka.
- Bigarrena: Olatz Alonso. Guztira 164 bozka.
- Hirugarrena: Jon Ugalde. Guztira 78 bozka.

Emaitza jakin eta gero, plazaren eraldaketa Albert Fuentesen egitasmoaren arabera



Herritarrek irudi honen bitartez ezagutu zuten Albert Fuentesen egitasmoa zein zen.

“Gaur egungo plazaren berrantolaketa, bere betiko izaera mantenduz, baina erabilera eta ekintza berriei aurre egiteko gai den hiri-espazioa sortuz”.
Albert Fuentes

burutuko da. Maketako irudiak argi erakusten duen bezala, etorkizuneko San Juan plaza autorik gabekoa eta oinezkoena izango da. Udalak eskatu bezala, herritarren topaleku eta aisialdiaz gozatzeko unea izango da.

“Urnietako plaza berria”, Felipe Izagirreraren iritzi artikulua



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Pozez irakurri dut Urnietako udalak herritarrei zer nolako plaza nahi duten aukeratzeko eskubidea eman dienaren albiste. Teorian erabakitze eskubidea denek onartzen dute baina praxian eskubide hori ez da maiz gauzatzen. Beraz, alderdi horretatik, zorionak Udalari eta herritarren parte hartzea paper hutsean gera ez dadin bide horri jarrai diezaioala.

Berri honek iraganera eraman nau, nire haurtzarora alegia. Garai hartan ez zen gaurkoa, noski. Ez zuen gaur adinako porlanik, gune zabala zen. Eskolak plazatik hurbil zeuden eta jolas denboran plazara joaten ginen jolastera. Batera eta bestera ibiltzeko gunea zen, Kontsejupea pilotari lotuta baitzegoen. Plazan bizikletan ibiltzeko ere gune aproposa zen. Nik han ikasi nuen bizikletan ibiltzen, Lourdes Iriondo zenaren laguntzarekin. Gaurkoa ez dut ikusten hain zabala, porlanarekin batera eserlekuak, zuhaitzak..., horrek guztiak jolasteko aukerarik ez du eskaintzen.



SAN JUAN PLAZA 1929

“Hemen dugu San Juan plazaren beste ikuspegi eder bat: ezkerretara erretoaren etxea, honen atzean Kantoi-berri ikus liteke; erdian Kantoi etxea eta honen ezkerretara, atzean, Biteri eskolaren teilatua. Erdian San Juan Ebanjelariaren edo Santa Leokadiaren basiliza, bere hiru arkuetatik bi itxita dituela; atzean, Santa Leokadiari erantsita Elizatxo etxea eta atzerago Alariku etxearen teilatua ikus liteke. Aldapan gora Oblatoen komentuari izkina ikus liteke, Anjelaenea etxe-ko zuhaitzxoan atzean.

Argazki hau Juan Bautista Zumalakarregi Irulegi urnietar ongileari herriak egin zion omenaldikoa da, 1929ko urriaren 17koa, egun hartan Cubako La Habanatik sorterrira etorri baitzen bere herrikideen eskerroa eta omenaldia jasotzera, ordura-ko ia 35 urtez Urnietako 60 herritar zaharrei, gizaseme zein emakumezkoen, dirusaria banatzen baitzien urtero, Mikel Goiaingeruaren egunean, bere iloba baten bidez. Zaharrek bete beharreko baldintzak hirurogei urtetik gora-koak izatea eta inongo ondareren

jabe ez izatea ziren, eta zaharrenei ematen zien dirusaririk handiena.

Argazkian, haren omenez agintariak eta herritarrek dantza-soka egiten ari dira plazan barrena, Juan Bautista Zumalakarregi ekarri zuen automobila Kontzejuzar etxearen parean dagoena delarik. Ondoren, Udaletxeko Batzarre Aretoan olio-margotan eginitako Juan Bautistaren irudia bistartu zuten, Herriko Seme Kuttun izendatzearekin batera”.

Urnietako erretratu zaharrak
Argazki liburua

Plaza, bestalde, herritarrek biltzeko gune aproposa da. Herriaren gunea, antzinatik datorren ohitura da. Greziarrek bazuten bere bilgunea, zeinean herriari zegozkion arazoak eztabaidatzen zituzten.

Herriko festetan ere plaza ospakizunen gunea zen.

Gure haurtzaro garaian lekurik bazen erroskila, tonbola eta hainbat postuentzat. Terexak bazuen horrelako bat eta han ibiltzen ginen jende tartean, ea

erroskila edo zerbait lapurtzen genion. Dantza lekura ere aproposa zen eta leku ilunagoa nahi zuenak hurbil zeukan Kontsejupea, han errezagoa baitzen dantza lotuan egitea. Puntu honetan badut pasadizo

xelebre bat. Guk orduan 13-14 urteko mutikoak hasiak ginen dantza kontuan, eta Don Emilio maisuak ez zuen hori begi onez ikusten. Hurrengo egunean eskolan mila aldiz kopiarazi egiten zigun ez ginela neskekin dantza lotuan ibiliko. Orduko kontuak!

Irakurri eta ikusi ahal izan dudanez hiru proiektu aurkeztu dira. Eta, hiru horietatik herritarrek erabaki dutena argazkian ikusi dut eta gustatu zait. Egileak dioenez gainera, plazak hasieran zuen egiturara itzuli nahi izan du. Nik berak diseinatu duenari estilo minimalista deituko nioke eta horrelako guneak oso gustuko ditut. Gune zabalak eta apainketa gutxi. Eta horrek, gure txikitako plazara garamatza. Gune libre, adin guztietako herritarrek toki izan dezaten. Adin bakoitzari dagokiona garatzeko. Ekitaldi ofizialak aurrera eramateko ere. Hori da, hain zuzen, nire irudiko, tradizioa eta modernitatea elkar lotzeko biderik egokiena. Lehengoa baina berri-berria, gaurkotua. Hori arlo guztietara eraman beharko litzateke. Hori da, nolabait, pertsonok ere gazte mantentzen gaituena, hots, gaurkotzeko, garaian garaikoari egokitzen jakitea. Beraz, pentsatzen dut urnietarrek aukera ona egin dutela eta jakin dutela zaharberriak uztartzen. Bejondeiela!

Bastero pareko edukiontziak

Andoaingo EAJ-PNVk Udal Gobernuari Eskola kalea eta Txistoki pasealekuaren bidegurutzean kokaturiko edukiontzien kokalekua alda dezala eskatu dio, hainbat bizilagunek kexa adierazi dutelakoan. Arazoa udaberritik datorrela diote, merkatu plazan hobekuntzak egiten hasi

zirenetik. Bertatik lur azpiko edukiontziak kendu eta horren ordez beste berri batzuk jarri dituzte errepidearen ertzean, Ondarreta kaleetik eta Bastero kulturgunetik gertu. Bertako bizilagunen tzat arazo dela iritzi dio EAJ-PNVk, ohar bidez igorri duen kexan.

Herri batzarra larunbatean

Andoaingo EH Bilduk bere militantzia deitu du larunbat honetan Urigainen egingo den bilerara, “2011-2015 legegintzaldiko balorazioa eta datozen Udal hauteskundeak” izenburupean. Goizeko hamarretan hasita, Udal politikagintzaz jardungo dute: “Duela lau urte, udaletxeko Udal gobernura ailegatu gi-

nen EH Bilduko kideak. Lau urte hauetan hauteskunde kanpainen erabili genuen hari-matazari forma ematen jardun gara, aurreikusten genituen proiektu eta egitasmoak martxan jarritz”. Guztien artean “oker egindakoez eta egoki bideratutakoez” hitz egiteko unea iritsi zaiela ohartarazi dute.

Basteroko garajeak

Andoaingo Basteron erabilerari pribaturako garaje-plaza bat hutsik geratu da. Udalak 75 urteko esleipen prozesua zabaldu du, eta esleipena aurkezten diren eskaeren hu-

rrenkeran onartuko da. Garajearen prezioa 17.000 eurokoa da. Informazio osagarria Andoaingo udaleko hiritzinta bulegoan eskaintzen ari dira.

Foru Aldundiak Otietako arrain haztegia berreskuratuko du

Herritarren aisialdirako gune bilakatuko dute



Errekak bere bidea berreskuratuko eta eremu hori herritarren aisialdirako egokituko dute.

Andoaingo Udalak aurreko astean prentsa ohar bidez iragarri zuenez, aspaldian lan jarduerarik ez duen “Truchas Erreka” arrain-haztegia herritarrentzat berreskuratuko urratsak eman ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Arrain-haztegiak duela bost urte itxi

zituene bere ateak. Foru Aldundiak enpresari dagokion eremua eskuratu du, hura berreskuratuko eta herritarrentzat erabilgarri ipini asmoz.

Udalak dagoeneko beharrezko baimenak eman ditu, eta lanak bi fasetan gauzatuko dira. Lehena aurki hasiko dute; ige-

rilekuko forma duten haztegiak kenduko dituzte. Bigarren fasea datorren urtean abiatuko dute, errekak bere ibilbide naturala berreskuratuko asmoz. Lanak amaituta, Udalaren iragarpenen arabera, “herritarrek paraje eder horiez gozatzeko parada izatea espero da”.

AXERI DANTZAKO KIDEAK ZANGOTZAN DANTZARI ARITU ZIREN, NAFARROA OINEZ EGUNEAN

Nafarroako ikastolekin eta Zangozakoarekin bat eginez, Andoaingo axeri-dantza taldea eta txistulari banda Nafarroa Oinezen izan zen ikuskizun ederra eskainiz. Ezagun ez duenarentzat, Andoaingo edota Adunan oinarri duen tradizioak ikusmin handia sortzen du. Txalo zaparrada jaso zuten Andoaingo axeriek aurreko igandean, Nafarroa Oinezko ibilbidean barrena. Andoaingo aldean ere atsegin handiz hartu dute ideia. Sare sozialetan arrakasta handia izan dute albistak, argazkiak eta bideoak. Sanjuanak iritsi bitarte, andoaindarrek Axeri-dantzaren edizio berria ikusteko zain egon beharko dute.



Andoaindik joandako txistulariak eta dantzariak.



Joaldunak axerien paretik igaro zirenean.



Joxema Setien, Jesus Mari Otamendi eta Gotzon Huizirekin kalejiran ibili ziren ibilbidean barrena.

JABETZE ESKOLAREN IKASTURTE BERRIAN IZENA EMATEKO AUKERA ZABALIK

Zer egin eraso sexisten aurrean?, ikastaroa Silvia Arevaloren eskutik

Indarkeri eta eraso sexisten aurrean erantzuteko ikastaroa antolatu du Andoaingo Udaleko Gizarte Zerbitzuak sustatu duen emakumeentzako jabetze eskolak. Karrika auzokoa den Silvia Arevalo psi-

kologoak eskainiko du ikastaroa. Emakume ororentzat irekia dago, edonork noizbait indarkeriazko egoera bizi dezakeelako. Urriaren 30era arte zabalik dago izena emateko epea.

Zein helburu ditu ikastaroak?

Silvia Arevalo: Egunero kasu berriren bat ari gara ezagutzen, tratatu txarrak eta indarkeria sexista gaitzat hartuta. Ikastaroak emakumea egoera horiek identifikatzen eta horiei aurre egiteko gaitasunean trebatu nahi du. Kontzientiazio ikastaroa izango da, non galdera batzuren inguruan irizpide batzuk emango diren: zer den bortizkeria, zein mito dau den bortizkeriaren atzean, zergatik gertatzen diren... Mito guzti horiekin apurtzea izango da helburua. Izan ere, emakume batek defendatzeko mila formula eta baliabide jakin ditzake, baina buruan ez badauka defendatu beharraren kontzientzia, eta pentsatzen badu tratatu txar horiek berak eragin-dakoak direla, bada, bere kalterako izango da.

Autodefentsa landuko da?

S.A.: Ez da autodefentsako ikastaroa izango; nolahi ere, ikastaroaren azkeneko zatian zertxobait landuko da alor hori. Beste irtenbiderik ez dagoenean, muturreko egoeratik nola irten jakiteko ariketa fisiko batzuk irakatsiko dira. Beraz, azken pausotzat joko da autodefentsarena, erasotzailearen-gandik babes distantzia mantentzeko lagungarri izan daitekeena; norbaitek heltzen badizu nola askatu, lurrera botatzen bazaitu egoeratik nola irten eta laguntza nola eskatu...

Mitoei garrantzia ematen diezu...

S.A.: Tamalez eta penaz, gizarte matxista batean bizitzen jarraitzen dugu, eta badira mito jakin batzuk belaunaldiz belaunaldi transmititzen ari direnak. Gaur egungo zenbait gazteren jokabidea ikusi besterik ez dago: maitasuna nahasten dute bikote posesibo eta jelskor batekin. Esanguratsua da, adibidez, whatsapparen bidez gertatzen dena maiz: mezuak etengabe bidaltzea maitasun adierazlea baino kontrolatzeko modu bat izan daiteke.



Silvia Arevalo Karrika auzoko herritarra izango da ikastaroaren dinamizatzailea.

“Esanguratsua whatsapparen bidez gertatzen dena maiz: Mezuak etengabe bidaltzea maitasun adierazlea baino, kontrolatzeko modu bat izan daiteke”

Nor gonbidatuko zenuke ikastarora?

S.A.: Ahalik eta emakume gehien etortzea nahiko genuke; izan ere, ez baitago jakiterik noiz topa daitezkeen indarkeriazko egoera batekin. Nork esaten dizu ez zaizula lapur edo bortxatzailearen bat ater-

ko kutxazainera dirua ateratzera joan zarenean edota lantokitik etxera zoazenean? Iruditzen zaigu beti besteei gertatzen zaiela, ez guri. Besteak omen dira zuhurgabeak, ez geu.

Argi utzi nahi dut ikastaroa ez dela bideratzen bakarrik indarkeria giroa bizi duten emakumeentzat. Edozein bilaka daiteke indarkeria mota horren biktima. Klase soziala, bizigunea, heziketa maila eta diru ahalmena bezalako faktorek ez dute eraginik; pertsona bat berez biolentzia denean, ez dute hainbesteko ajola beste

“Ikastaroa ez da bakarrik indarkeria giroan bizi diren emakumeentzat. Edozein bilaka daiteke indarkeria mota horren biktima”

faktore horiek. Alde horretatik, erreparatu, lotsa eta aurre iritziak alde batera utzi eta ikastarora etortzera animatuko nituzke Andoaingo emakumeak.

Denok ere alor honetan ikasteko asko daukagula iruditzen baitzait.

IKASTAROA

JABETZA ESKOLA

Izenburua:

Zer egin indarkeri eta eraso sexisten aurrean?

Irakaslea: Silvia Arevalo.

Hizkuntza: Euskara.

Noiz: Azaroak 4-11-18-28 eta abenduak 5-12.

Non: Urigain kultur etxea.

Matrikula: 10 euro.

Izen-ematea: Udaletxeko Atarian, urriaren 30 arte.

Informazioa: 943 304 343, Udaleko Gizarte zerbitzuak.

Nola hasi zinen ikastaroak ematen? Zerk bultzatuta?

S.A.: Autodefentsa ikastaroetan ohartu nintzen, alderdi fisikotik ere jo behar dela, baina ez dela nahikoa. Autodefentsara jo aurretik, premiazkoa dela emakumeak alderdi psikologikoa lantzea, bi arlo batez ere: kontzientiazioa eta identifikazioa. Hausnartzeari, prestakuntza teknikoan sakontzeari eta dokumentazioa biltzeari ekin nion, eta ondoren hasi nintzen emakume taldeei ikastaroak ematen, haien-tzat lagungarri izan zitekeelakoan.

Agipad elkartean hezitzaile gisa aritzen naiz emakume taldeekin, eta eskarmentu hori baliagarri izan zait orain indarkeria matxistari buruzko ikastaroei heltzeko.

Eskelak,
hileta-oharrak
Aiurri
astekarian

diseinua@aiurri.com | 943 300 732



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ANDOAINGO UDALAK 16-29 URTE ARTEKOEN ARTEAN SUSTATU DUEN PARTE HARTZE PROZESUA

“Gazteok hartu hitza!” ekimenak azaroan izango du jarraipena

Lehen bilera sorta igarota, azaroan beste bi hitzorduekin osatuko da gazteei zuzenduriko parte hartze prozesua. Bileretara uste baino gazte gutxiago agertu bada ere, idatziz jasotako eta bileretan bildu-

tako ekarpenak askotxo izan dira. Hilabete barru ondorioak aterako dituzte, bilera horietan jasotako ekarpenak jaso eta aztertu ondoren.

Urriaren hamalauan Gazte-txean deitu zuten bilera oparoa izan zen, bertatik proposamen zehatz ugari atera zirelako: gazteentzako programazio zehatza lantzeko eskera, gazteak bildu edota entseatzeko eraikin publikoen berrantolaketa, tailer eta baratza komunalak sortzea, elkarlanean jarduerak burutzeko herriko elkarten sarea osatzea, alokairu soziala sustatzeko etxebizitza hutsen kudeaketa egitea...

Horiexek dira askoren artean bota zituzten proposamenak, eta partehartu.wordpress.com blogean irakur daitezkeenak. Ideia eta proposamen sorta hori azken ondorioetan azalduko dira. Pro-



Urriaren 14an Andoaingo Gazte-txean egin zuten bilera, “Gazteok hartu hitza!” parte hartze prozesuaren baitan.

Basteron izango dira hurrengo bilerak, azaroaren 5ean eta 19an hurrenez hurren

zesua amaitu aurretik, ordea, bi hitzordu berri deituko dituzte. Biak Basteron, azaroaren 5ean eta 19an hurrenez hurren. Biak ere irekiak izango dira.

Azaroaren 5ekoa “Proposamenak mahai gainean jarri eta denon artean erabaki” izenburupean burutuko da, 18:30etan hasita. Azaroaren 19an parte hartze prozesuari amaiera emango zaio, azken erabakien berri emateko baliatuko dutena. Bilera hori 18:30etan hasiko da.

GAZTE EGUNA IRUDI BIDEZ



Aurtengo manifestazioa “Irunberri ez itxi” lelopean burutu zen.



Asanblada egin zuten manifestazioari hasiera eman aurretik.



Irunberri elkartearen atarian tadeko argazkia egin zuten.



Egun osoko ospakizuna Gazte-txean amaitu zen, Ingo al deu? taldearen kontzertuarekin.

“Selfie” argazkiak eginez kanpainarekin bat egin daiteke

Elkarri on egiten diogula erakusten ari da Atzegi



Eskualde osoko kideak bildu ziren Lasarte-Oriako agerraldian.

Alex Tetuan Atzegi elkar-teko kideak hasiera eman zion eskualde mailako agerraldiari, Lasarte-Oriako udaletxe arkupeetan egin zuten prentsurrekoan, “Elkarri on kanpainarekin bi ideia nagusi gizarteratu nahi ditugu. Batetik, elkarrekin denok askoz hobe gaudela. Horrez gain, on adiera hainbat tresna pizteko erabiltzen dugu. Bada, beste modu batera ere gizartea martxan jarri nahi dugula adierazten ari gara. Horregatik aurtengo kanpainan herritarrei euren eskuko telefonoekin argazkiak edo *selfie*ak egitea eskatuko diegu. Bide batez, argazkiarekin batera, herritar bakoitzak gure seme alabekin bere esperientzia konta dezala. Lerro horien bitartez eurei zein balore positibo eskaintzen dien konta dezatela”.

“Udaletxean lanean dugu Aihotz eta oso esperientzia polita eta ona izaten ari da”

Ana Carrere

Adierazpen horiek egin eta gero, Andoaingo alkate **Ana Carrereri** hitz egiteko aukera eskaini zion. Udaletxean azken urteetan Atzegi kide **Aihotz Albisu Lasa** urnietarra Andoaingo udaletxean ari da, administrazio lanetan.

Andoaingo alkateak poza agertu zuen ekimenarekin, “udaletxean lanean dugu Aihotz eta oso esperientzia polita eta ona izaten ari da. Bere kasuan profesionala da, langilea da. Hau ez da Udalak egiten dion mesede bat. Berak bere lana egiten du, eta oso ondo

gainera. Alaia da gainera!”. Udaletxean hainbat urtez ari da lanean eta alkateak adierazi zuenez, Udal mailan egiten duten balorazioa oso ona da, “Udal lansail guztiekin harremana du, eta bertako bat gehiago da guretzat”. Integrazioaren adibide argi bat da Aihotzena.

Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkateak antzeko esperientziaren berri eman zuen, “gure kasua ere Andoaingoaren oso antzekoa da”. **Jon Roncero** herrikidea lanean izan zuten udaletxean, “egunerokoan liskar txikiak sortzen dira eta nire esperientziagatik langile hauek giroa gozatzea eta lasaitzea lortzen dute”.

Kanpainarekin bat egiteko:
609 703 706 / www.atzegi.org



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Etxean otso kanpoan uso

Gure esaera zaharrek gure izaera nabarmentzen dute askotan. Esaera hau ere gure arbasoengandik datorkigu, gure etxeetan zinzela grabatuta dago etxeko bihotzetan: alderdi onak ez azpimarratu gure etxekoei, sinistu egingo du eta harrotu egingo

da. Euskaldunen pekatutik haundiena harroa izatea da; harroa izan ez dadin ez deskuidatu inoiz gauza onik esaten, gauza txarrak nahi adina. Azkeneko idatzian esaten nuen haurra maitatu egin behar dela, bera maitatua senti dadin, eta horretarako ez ezkutatze alderdi onak, nabarmendu egin behar zaizkiola baizik.

Hara hemen kontraesana. Zer egin?

Esaera hau egunero funtzionatzen duen jokabidea da. Lehendabiziko ikusi egin behar da hala den edo ez. Mingainean perlesi bat, herdoila ez ote degu gauza onak adierazterakoan? Guk asko-

tan entzun ahal genuen gure etxean guregandik gauza bat ona? Txarrak zenbat aldiz? Kanpokoengandik esaten ez al gera ugari izaten? Gauza onak egitazkoak izan behar dute. Zurikeria gorroto degu; losintxaz gauzak esatea pelotatzea da.

Bere neurrian, den bezala, esan behar da, ez loratu gehiegi eta ez gutxiegi. Zuhurrak gera puntu horretan, konpondu behar dugun jokabidea da hau, zizelkatuta daukagu hau eta nahimena erabiliz konpondu beharrekoea da. Entrenatu egin behar degu hau; egunen baten alda dezagun esaterakoan: etxean uso kanpoan otso.



Aiurri, eskualdeko nortasun hitzak



AXERI-DANTZA NAFARROA OINEZEN



GAZTE EGUNA ANDOAINEN

Andoaingo eta Urnietako telebista Internet sarean



MINTZALAGUN EKIMENA ANDOAINEN

ARGAZKIAK

BIDEOAK



AUZIPERATUEK MARTIN UGALDE KULTUR PARKEAN ESKER ONA ADIERAZI ZIOTEN EUSKAL GIZARTEARI

Egunkaria auzia itxita, eskertza ekitaldia Andoainen

Egunkaria auzia amaitu izana ospatzeko eskertza ekitaldia egin zuten urriaren 17an, Martin Ugalde kultur parkean. Joan Mari Torrealdai hartu zuen hitza eta hamaika urteren ostean, “pozik eta la-

sai” zeudela adierazi zuen. Eskerrak eman zizkieten gerturatu ziren guztiei, abokatuiei, kataluniarrei eta, batez ere, euskal gizarteari.

Euskal gizartearen solidartatea, elkartasuna, atxikimendua, sostengua, babesa; hitz batean, maitasuna, gainezka jaso dugu. Egunkari bat ere opari”, adierazi zuen Joan Mari Torrealdai auziperatu guztien izenean.

Dena den, pozik eta esker onez daudela bai, baina auzia ez dutela irabazi adierazi zuen: “Hamaika urtez zintzilik eduki gaituzte, modu bortitzean atxilotu gintuzten, lege kanpoko galdeketa zitalak egin dizkigute, torturatu egin gaituzte, hilabeteetan kartzeletan izan gaituzte, gure ondasun pertsonal eta kolektibo apurrak ere bahitu egin dizkigute”. “Inork ez digu oraindik hitz siple hau esan: barkatu”, gaineratu zuen Torrealdai. Kartzelan dauden Egineko hamaika kazetariez ere gogoratu zen. Egunkaria auzia itxi da, baina gertatutakoa ez ahazteko eskatu zuen: “Ez dezatela ahaztu euskal belaunaldi berriek”.

Babes handia jaso zuten ekitaldian. Auzipetuek gain, bertan egon ziren senideak eta hainbat politikari eta instituzioetako ordezkariak

Babes handia jaso zuten ekitaldian. Auzipetuek gain, bertan egon ziren senideak, Beatriz Zabalondo Administrazio kontseiluko lehendakaria, Martin Garitano ahaldun nagusia, Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako sailburuordea, Jokin Azkue Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria, Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusia, Zigor Etxeburua Gipuzkoako Aldundiko Euskara zuzendaria, Ana Carrere Andoaingo alkatea, Juan Karlos Izagirre Donostiako alkatea, Joseba Egibar EAJ-PNVko GBBko presidentea, Hasier Arraiz Sortuko presidentea eta Pernando Barrena bozeramailea, besteak beste.



Joan Mari Torrealdai izan zen eskertza ekitaldiko bozeramailea.



EH Bilduko eta EAJko ordezkariak hurbildu ziren, besteak beste, Andoainera.

JOAN MARI TORREALDAIREN ADIERAZPENA

“Pozik gaude. Lasaia gaude.

Egun handia da hau gure bizitza pertsonaletan. Zama handia kendu dugu gainetik, guk, gure familiek, gure ingurukoek. Astuna izan da, eta astunak izan gara zuekin hamaika urte hauetan.

Orain esker onen unea da. Lehen esker ona, gure abokatuiei. Zuhurrak izan dira, azkarrak izan dira. Esku onetan izan gara. Bagenekien, badakigu.

Denagutxi iruditzen zaigu, dena motz geratzen zaigu, euskal gizarteari eskerririk asko esan behar diogunean, hemen zaudetenoi eta milaka askori. Nola esan kataluniarrei ere eskerririk asko, jaso dugunaren neurri berean? Ezin. Beti labor geratuko ginateke.

2010eko apirilaren 25ean Bilboko Euskalduna Jauregian ekitaldi jendetsu eta beroa burutu genuen, Madrilgo Auzitegi Nazionalak auzipetuoi absoluzioa eman eta segituan. Orduan amaitu zen askorentzat, gehienentzat agian, Egunkaria auzia.

Ez da horrela izan, ordea. Horregatik diogu egun handia dela gure bizitza pertsonaletan gaurko hau.

Pozik gaude eta esker onez. Euskal gizartearen solidartatea, elkartasuna, atxikimendua, sostengua, babesa, hitz batean, maitasuna, gainezka jaso dugu. Egunkari berri bat ere bai opari. Jaso dugun hori guztiori zuoi nola itzuli? Modu xumerik xumeenean horretarakoxe da gaurko ekimen hau.

Pozik gaude eta esker onez, bai. Eta, hala ere, ez dugu irabazi. Hamaika urtez zintzilik eduki gaituzte. Modu bortitzean atxilotu gintuzten, nokturnitate eta alebosiaz. Legez kanpoko galdeketa zitalak egin dizkigute. Torturatu egin gaituzte. Hilabete eta hilabeteetan kartzelan izan gaituzte. Gure ondasun pertsonal eta kolektibo apal apurrak bahitu egin dizkigute. Iraindu egin gaituzte publikoki. Atxilotu gintuzten goizalde beretik epaitu, errundundu eta zigortu egin gaituzte.

Guk geuk azaldu behar izan dugu ez gurela hobea edo errurik. Paradoxikoa badirudi ere, gure erasotzaileek ez dute beharrik izan gure balizko delituak frogatzeko. Errundundu egin gintuzten, zigortu, eta kitto.

Gero, absolbitu egin gintuzten, bai, zazpi urteren buruan, eta orain, zorionez, bukatutzat eman dute kalbarioa. Baina eragindako kalte handien ordainik ez dago. Ez guretzat, ez Egunkaria osatzen genuenontzat, ez euskal gizartearentzat.

Inork ez du esan oraindik hemen hitz ximple hau ere: Barkatu.

Hemen erasoak egon da, eraso bortitza. Erasotuak egon dira, eta hemen gaude pozik gaudela esaten, zuei eskerrak ematen. Aukera hori ere ez dute beste askok, Egin egunkariko kideek, esate baterako.

Bai, erasoak ugari eta erasotuak ugariago. Baina erasotzaileak ere egon dira, eta ez dugu inor entzun barkamen eske.

Iraganarekiko kontu-garbitze laneetan sartuta gaude euskal gizartearen. Agenda horretan ikusi nahi genuke Egunkaria auzia ere. Memoria eta errepazioa Egunkaria-rentzat ere.

Memoria aktiboa eskatzen diogu euskal gizarteari orain. Memoria kolektiboan ondo gordeta mantentzea, belaunaldiz belaunaldi, XXI. mende hasieran euskarak eta euskalgintzak jasandako eraso kolpe latz hau. Askok usteko zuen aurreko mendeko diktaduren garaioak zirela halako estatu erasoak. Oker ziren. Gaur-gaurko estatu europar homologatuak ere arrasto berari jarraitu dio, konplexurik gabe.

Historia txarra errepikatu egiten da ahazten bada. Ez dezala ahaztu halakorik euskal gizarteak.

Eredugarria izan da Egunkaria-ren harira gizarteak adierazi duen giharra. Guk ez dugu inoiz ahaztuko. Ez dezatela ahaztu euskal belaunaldi berriek.

Zorionez, beti-beti ez dute erasotzaileek irabazten. Oraingoan aurrera jarraitu nahi zuten. Ez dute lortu. Horregatik, pozik gaude.

Egunkaria auzia dela eta, inputatu eta auzipetuok talde gisa azken aldiz jendaurrean gauden unea baita hau, nola bukatu bestela, eskerrak eman ez ez bada.

Eskerrik asko, Euskal Herria. Eskerririk asko, Katalunia. Eskerririk asko, babestu gaituzuen guztioi.

Egunkaria, libre!”

HITZ-GEZIDUNAK

* Aplikazio sortzaile asteasuarra

	Taberna	▼		Tratua egin	▼		Ezkontide arrak	▼	
	* IZENA			Nafarroako udalerria			Iparraldean, naiz		
	▶			▼			▼		
	Araknido mota	▶							
	Oso-oso garbia								
	▶								
Oroitzeko ahalmen	▼		Emakume izena	▼	Bizkaieraz, garoa, iratzea	▶		Röntgen	▶
Gutziz, arras			Enda		Lehenengo bokala			Aditu	
▶		▼		▼			Gironako ibaia	▶	
							Koipe	▼	
(zah.) Zakurra	▶				24 orduko epea	▶			
Titulu ingeles					Interjekzioa				
▶			Nafarroako ibaia	▶	▼		Bokalik gabeko ataka	▶	
			Edari bizi				Euskadi, labur-labur		
* DEITURA	▶		▼				▼		Sodioaren ikurra
Gipuzkoako udalerria									
▶					Gipuzkoako udalerria	▶			▼
					Bokal biribila				
Oso-oso txiki	▶			▼	Izandakoa	▶			

SUDOKU

9 x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3 x 3-ko laukian ere

4				8	2		9	
	8		3				1	
			1		4	7		
	4				8	5		3
9		5	2				4	
		2	6		1			
	7				5		6	
	9		8	7				1

5 X 5

Ezker eskuin eta goitik behera, zenbaki bakoitzean hitz bera aterako zaizu

	1	2	3	4	5
1					
2					
3					
4					
5					

1. Tontorra, gailurra. 2. Mesedez, othoi, faborez. 3. Gipuzkoako udalerria, Tolosaldean. 4. Erroma erre zuen enperadore hura. 5. Tropiko aldeko fruitua.

GOITIK BEHERA

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharrekoak

1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								

1. Barazki lore jangarri-dun. 2. Gipuzkoako herri bateko. 3. Arreta. 4. Hondoa, lurra. 5. Burdinola. 6. Esfera. 7. Elefanteen gai zuria. 8. Pilota handia. 9. Emakume izena.

ERANTZUNAK

1	9	2	3	7	8	7	6	9
8	9	6	5	2	2	4	3	7
7	3	7	6	9	8	5	8	5
6	1	5	2	3	7	8	4	6
5	3	2	8	5	4	6	1	7
4	6	9	1	8	5	2	3	7
3	2	8	5	4	6	1	7	8
2	8	7	3	5	9	6	1	4
1	4	6	1	7	8	2	3	9

A	N	V	N	V
N	O	R	E	N
A	R	R	A	I
R	E	N	A	R
G	A	I	N	A

Azalore, Lezoar, Zeloa, Zola, Ola. Bola, Bolla, Balola, Fabiola.

S	E	N	I	N	Z	A	R	R	E	R	A	K							
T	N	E	I	N	Z	A	R	R	E	R	A	K							
E	D	A	K	A	T	Z	A	R	R	E	R	A	K						
E	D	A	K	A	T	Z	A	R	R	E	R	A	K						

Bularreko minbiziaren aurkako eguna



Escola kalean merkatu plazaren atarian postua ipini zuten.

Katxalin bularreko eta ginekologiako minbiziagatik eragindako Gipuzkoako emakumeen elkarteak kanpaina

egin zuen aurreko larunbatean Andoaingo kaleetan, bularreko minbiziaren aurkako nazioarteko egunean.



Allurralde inguruan diru bilketa egiten aritu ziren, besteak beste, Mari Jose Alzate, Marisol Fernandez, Juli Perez eta Manoli Rico.



Leizaran eskubaloi taldeko kideek bat egin zuten kanpainarekin.

Areto futbol txapelketa

4. Jardunaldia

- Leiza 77 3-7 Keler
Z.Uefa 3-2 Extr. Andoain
Ondarreta 2-5 Galpasitx
Pausoka Elkartea 1-9 Ekhia
Aure Maiton 6-3 Ekaitz
Academia G.F 6-11 Centro

Sailkapena

- 1 Centro Extremeño 12
2 Ekhia 10
3 Aure Maiton 9
4 Ekaitz 9
5 Keler 9
6 Bar Txalaka 6

Preferente mailako futbola

5. jardunaldia:

- Euskalduna 2-0 Deusto
Pasaia 1-3 Urnieta
Asteburuko partidak:
Munibe-Euskalduna
Urnieta-Astigarraga

Sailkapena:

1. Urnieta 13
2. Orioko 12
3. Lengokoak 11
5. Euskalduna 9
16. Hondarribia 1



KIROL ALBISTEAK

Javier Miguel eta Ander Lazkano duatloian eta triatloian trebe

Triatloia indarrean dago, horixe adierazten du Zumeatarra atletismo taldeko datu batek: 30 bazkide dira triatloia-jardueraz ezberdinetan murgilduta dabilzanak. Javier Miguel eta Ander Lazkano

horietako bi dira. Hamaika urte daramatza distantzia luzeetan Miguel; lau, Lazkanok. Elkarrekin entrenatzen dute, eta Iruñeako Saltoki Trikideak taldearekin lehiatzen dute.

Denboraldia irailean amaitu zenuten hemen Euskal Herrian.

Javier Miguel: Klimaren arabera da, eta Euskal Herrian normalki otsailean hasi eta iraila aldera bukatzen dira lehiaketak. Hori bai, geografikoki zenbat eta beherago joan, orduan eta beranduago bukatu. Espainiako distantzia luze-ko txapelketa, adibidez, azaroaren 1ean jokatu da, Lanzaroten. Harako prestatzen ari naiz azken asteetan.

Nola doa prestaketa?

J.M.: Nahiko kokoteraino egin da nabil azken egunetan, egia esanda. Lasterketako eguna lehenbailehen etor dadin desiatzen nago, bakea eta patsada hartzeko. Urte osoan entrenatzen dut, baina azken hilabete eta erdian gorputza estutzen ari naiz, entrenamendu bolumena igota. Madrilen egin dut azken proba, distantzia ertaineko Espainiako txapelketan, eta nahiko ondo ibili nintzen, hamargarren sailkatuz. Bada, kit profesional ugari doazela; alegia, hortik bizi direnak direla, bestelako lanbideetan dedikaziorik gabekoak; zaila dago kontua, hortaz. Konformatzen naiz lehen hamabosten artean sartzen banaiz.

Lanzaroten da txapelketa...

J.M.: Bai. Emaztea, haurra eta hirurok astebeterako goaz hara. Maila horretan ibiltzen garrenok zorionekoak izaten gara familiak oso ulerkorrak eta pazientzia handikoak ditugulako. Ezingo genuke bestela! Nire kasuan, aitona eta amonarengana ere luzatuko nuke esker-tza.

Nola da zure egunerokoa aste hauetan?

J.M.: Goizeko 06:00etan sartzen naiz lanean; 14:30an aterara, mokadu bat jan eta kirolde-



Ander Lazkano eta Javier Miguel.

gira igeriketa egitera joaten naiz. 19:00etarako libratzen dut, familiarekin egoteko.

Egun normal batean, 3 km igerian, 120 km bizikletan eta ordu bete korrika egin dezaket. Esaterako, atzo planifikazioan atsedean eguna neukan arren, 2 km igeri, 140 km bizikletan eta ordu bete korrika egin nituen.

Eta aurtengo Euskadiko txapelketa?

J.M.: Ospatzekoa zen, baina bertan behera utzi behar izan zuten antolatzaileek, trafikoa zirela medio. Izan ere, igande berean txirrindulari lasterketa ere bazen, eta Ertzaintzak haiei bakarrik eman zieten baimena. Errepidean, egun berean lasterketa bakarria ospatu liteke, nonbait.

Horrenbestez, Euskadiko txapeldun izaten jarraitzen dut, iazkoa irabazi eta gero!

Zuretzat, Ander, polita izan da aurtengo denboraldia...

“Egun normal batean, 3 km igerian, 120 km bizikletan eta ordu bete korrika egin dezaket”

Javier Miguel

Ander Lazkano: Triatloian laugarren urtea da nirea, eta nahiko ona izan da emaitzei begira. Euskadiko txapelketan podiumera igotzea lortu nuen, eta bigarren geratu naiz sprint eta distantzia olinpikoko proba ezberdinekin egin ohi den zirkuituan.

Javierrekin hasi nintzen distantzia luzeetan, baina bai berak eta baita eskarmentua daukaten beste batzuk aholkatu zidaten nire doainekin hobe nuela indarrak distantzia motzetara bideratzea. Egia esan, distantzia luzeetan sabeleko arazoak edukitzen nituen. Bada, kasu egin nien, eta geroz eta azkarrago eta gusturago nabil.

JAVIER MIGUEL

2013an Euskadiko txapelduna duatloiko distantzia luzean (12 km korrika, 75 km bizikletan, 12 km lasterka), eta triatloiko distantzia ertainean (1,9 km igeri, 90 km bizikletan, 21 km lasterka).

ANDER LAZKANO

2014an Euskadi eta Gipuzkoako hirugarrena sprint modalitatean (750 m igeri, 20 km bizikletan, 5 km lasterka).

Gogorra behar du izan triatloia, egunean hainbeste orduko entrenamenduekin...

JM.: Ez dakit zer esan... Kirol bakoitzak baitaizka bere ezau-garriak. Gogortasuna ezin da orduen arabera neurtu. Iaz adibidez, Zumeatarako batzuekin maratokia prestatu nuen, eta hor konturatu nintzen intentsitate handiagoa eskatzen dizula bi ordu eta erdiko lasterketa batek, hamar orduko Iron Man batek baino. Ehun metroko lasterketa prestatzen duen batek ere, entrenamendu gogorrak egin behar izaten ditu...

“Aurrerantzean hobetzen segitzeko itxaropena daukat. Nire helburua Euskadiko eta Espainiako txapelketan ondo ibiltzea da”

Ander Lazkano

A.L.: Entrenatzeko askoz ere atseginagoa eta entretenigarriagoa da triatloia. Entrenamendu taula bat egiten duzu, eta egun guztiek daukate bere erakargarritasuna. Hiru kirol ezberdin izateak asko laguntzen du horretan; gainera, gaur geratzen zara lagun batekin kirol bat egiteko, bihar beste batekin...

Zer moduz moldatzen zarete hiru probatan?

J.M.: Nik igeriketan huts egin dut zertxobait. Baina bizikletan oso ondo nabil; apenas zigortzen da nire gorputza, eta hortxe irabazten dut uretan galdutakoa. Gero, korrika, aurrez lortutako errenta mantentzen saiatzen naiz.

A.L.: Igeriketan nahiko ondo ibiltzen naiz. Okerrago gero bizikletan, baina saiatzen naiz taldean joaten eta erritmoa ez galtzen. Azkenik, lasterka defendatu egiten naiz.

Zein dira zuen helburuak aurrera begira?

J.M.: 37 urte bete ditut, baina orain bost urte baino arinago sentitzen naiz. Nire buruari erronkak jartzen dizkiot oraindik. Urrutira gabe, hurrengo urtean, kilometroetan astakeria dirudien proba bat egiteko asmoa daukat Alpeetan.

A.L.: Bi urte egin ditut distantzia motzean, eta aurrerantzean hobetzen segitzeko itxaropena daukat. Nire helburua Euskadiko eta Espainiako txapelketan ondo ibiltzea da.

Elkarriketa osoa: aiurri.com



KIROL ALBISTEAK

“Ikasketez gain, futbolaren alde ere apostu egingo nuke”

Nahikari Garcia urnietarrak urte hasieran debutatu zuen errealekin eta ordutik, gelditu gabe ibili da. Munduko azpitxapelketan 17 urte azpiko selekzioarekin, Europako txapeldunorde 19 azpiko selekzioarekin... Goleatzaile oso ona izan da, gainera.

Urte oparoa izan duzu.

Nahikari Garcia. Urte ona izan da bai. Txapelketek bizitasuna ematen didate eta alde horretatik pozik nago. Emaizta onak lortu ditugu eta gainera, minutu asko jokatu ditut. Hori ere garrantzitsua da eta oso pozik nago. Egia esan, gehiago espero nuen, urrezko domina lortzea gustatuko litzaidake; baina ez zen posible izan. Gainera, golak sartu ditut eta aurrelari batentzat oso garrantzitsua da joko ona egiteaz gain, golak sartzea eta taldeari laguntzea. Hori lortuta, pozik nago.

Gainera, orain errealean jokatzen duzu. Zure futbol ibilbidean izan duzun urterik onena izan da?

N.G. Bai, momentuz bai. Minutu asko jokatu ditut, golak sartu ditut eta Espainiako selekzioarekin denbora luzean egon naiz; hori garrantzitsua da. Gainera, Errealea iritsi naizenetik asko jolasten ari naiz. Esperientzia honek ikasteko asko balio du, pertsona bezala hazteko. Jokalari bezala asko ikasi dut, baina horrez gain, horrenbeste bidaiatzeak eta jende helduagoarekin egoteak nire pentsatzeko era aldatzea eragin du. Esperientzia, beraz, pertsonalki ere oso garrantzitsua da.

Zer moduz hasi duzu denboraldia?

N.G. Ez gara guztiz ondo hasi; lehenengo lau partidak galdu egin genituen. Baina ondo entrenatzen ari gara. Taldean oso giro ona dago, ondo egiten dugu lan eta denak bide beretik joaten saiatzen gara. Horrekin emaitza onak lortzea espero dugu.

Zer sentitzen da kapitaina izan da?

N.G. Erantzukizun bat gehiago da. Taldea beti bide onetik era-



Nahikari Garcia urnietar gaztea.

maten saiatu behar naiz. Pertsonalki pozgarria da, kargu bat gehiago daukalako gainean. Kapitaina izateak esperientzia gehiago dudala esan nahi du eta atzetik datozei erakusteko balio du. Hala ere, ez da ezer berezia. Azken finean, taldekide bat gehiago naiz, zelaian dagoen jokalaria bat gehiago.

Zein dira zure helburuak errealean?

N.G. Paper on bat egitea, bai pertsona bezala eta bai talde bezala. Beti aurreko denboraldiko emaitzak gaintitzea lortu behar da eta, espero dugu, nahiz eta gaizki hasi, ondo bukatzea.

Zein dira lehen mailan egotearen alde onak eta txarrak?

N.G. Batez ere, asko ikasten dugu. Lehenengo mailan egoteak, eta gainera, Erreala bezalako talde batean, asko esan nahi du. Erreala nesken futbolagatik apostatzen ari da. Egia esan, asko ikasten ari naiz, oso gustura nago eta hemendik aurrera futbolari bezala hazteko balioko didala espero dut. Alde txarrak ezkutatu egiten dira alde onekin, baina egia da ikasteko denbora kentzen duela.

Nola uztartzen dituzu ikasketak eta futbola?

N.G. Goizetan izaten ditut klaseak eta arratsaldetan entrena-

“Golak sartu ditut eta aurrelari batentzat oso garrantzitsua da joko ona egiteaz gain, golak sartzea eta taldeari laguntzea. Hori lortuta, pozik nago”

menduak. Espainiako selekzioarekin jokatzera ezin izaten dut klasera joan, kanpoan jokatzen dugunean asteburu osoa kanpoan igarotzen dugu... Denbora asko eskaini behar zaio eta ikasteko denbora ahal den lekutik atera behar izaten dugu.

Batxilergoa aurtan bukatuko duzu. Zein asmo dituzu datorren urtera begira?

N.G. Orain batxilergo zientifikoa egiten ari naiz eta esparru sanitariotik jarrituko dut; ziu-rrenik, erizaintza edo antzekoren bat ikasiko dut. Argi daukat ikasketak garrantzitsuak direla. Futboletik bizitzea oso zaila da eta, beraz, nire asmoa ikasketak aurrera eramatea da.

Ikasketak edo futbola aukeratu beharko bazenu, zer erabakiko zenuke?

N.G. Begiratu egin beharko nuke zerk konpentsatzen nauen gehien. Egia esan, futbolearen orain gauzak oso ondo ateratzen ari zaizkit eta aprobetxatzea gustatuko litzaidake. Ikasketez gain, futbolagatik ere apostu egin nahiko nuke, beraz, biak batera eramaten saiatuko naiz.

Non irudikatzen duzu zure burua hemendik hamar urtera? Zein amets bete nahiko zenituzke?

N.G. Ez dut asko begiratzen etorkizunera. Momentuz Errealean nago, gustura nago eta etorri behar duena etor dadila. Orain errealean dugun dinamika-rekin jarraitu nahi dut eta taldearekin gauza garrantzitsuak lortu. Iruditzen zait erreala dagoena baino gorago egoteko taldea dela. Bestalde, Espainiako selekzioarekin urteetan zehar jarraitzea gustatuko litzaidake, eta baita lehen taldean debuta egitea ere.

Txirrindularitza hizpide

Gazte Informazio Bulegoak eta Andoaingo Txirrindulari Eskolak “Zatoz Andoaingo txirrindulari eskola ezagutzera” hitzaldia antolatu dute

ostegun honetarako (urriak 23). Arratsaldeko 18:00etan hasiko da Gazte Lokalean, Peio Manterolak eta Julen Iri-goienen parte hartzearekin.

Urnietarrak eskuz binaka

Urnietar 10-22 Usurbil

Jon Alberdi-Imanol Odriozola


Eskuz binaka, kadeteak. Gipuzkoako bikote onenaren aurka galdu zuten. Partida irabazteko saiakera guztiak egin zituzten, baina ezin. Finalaurrekoak jokatzeko taldeko bigarren sailkatzen ahalegin-
du behar dute.

Lagunak 7-22 Urnietar

Julen Loitegi-Oier Gurutzealde

Eskuz binaka, seniorrak. Hobera egin dute nabarmen, eta sailkapenean erdialdean daude une honetan. Ez dute maila galduko, baina ezin izango dute lehen mailara igotzeko aukera eskuratu. Lastima.

Mendi bizikletan podiumean



Burgoseko probintzian Villarcayo herrian laugarren sailkatu zen Asier Arregi Bizikleta.com taldekoa. Podiuma eskura izan

zuen. Olatz Odriozola bere aldetik hirugarren sailkatu zen. Taldeka ere bikain aritu dira, lehen postua eskuratuz.

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

Gamon 25-48 Ganbara Sen.
Goierri 34-41 Ganbara Kad.
Ganbara Inf. 26-34 Easo

Asteburuko partidak:

Ganbara Senior-Luberri
Larunbata, 25. 19:15.
Ganbara Kadete-Soraluze
Larunbata, 25. 09:00.

Gipuzkoa mailako eskubaloia

1. Maila. 3. jardunaldia:

Leizaran 27-36 Usurbil
Urola 34-24 Urnietar

Asteburuko partidak:

Eibar-Leizaran
Urnietar-Gabaz

Sailkapena:

1. Usurbil	6
2. Amenabar	4
3. Aloña Mendi	4
9. Urnietar	2
10. Leizaran	0

Mikel Iturria Euskadin

Mikel Iturria urnietarrak beste urte batez Euskadi fundazioan jarraituko du, elite eta 23 urte azpiko mailan. Kontinental mailako profesional taldean bi urtez egon eta gero,

maila horretako taldea desgertu denez afizionatu mailan arituko da denboraldi berrian. Etorkizun handiko txirrindularia da, ea zortea aldeko duen 2015. urtean.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larreamendi
Kultur Buzkaria

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne
Olano, Joxeba Lizeaga
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzailleak:

Mikel Arregi
(Andoain), Garazi
Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

URRIAREN 23TIK AUERRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- “Lasa eta Zabala”.
19:30, 22:00.
Urriak 25, larunbata.
19:30.
Urriak 26, igandea.
19:30, 22:00.
Urriak 27, astelehena.
- “Las nuevas aventuras de Capercucita roja”.
Urriak 25 eta 26. 17:00.

Urnietan, Sarobe

- “Guardianes de la galaxia”.
16:00, 18:30.
Urriak 26, igandea.
- “Malefica”.
16:00, 18:30.
Azaroak 2, igandea.

Ikastaroa

Andoain

- Jabetze eskola: Zer egin eraso sexistaren aurrean?
Matrikula: 10 euro, Ataria.
Izen-ematea: Urriak 31.

Literatura

Andoain, Bastero

- Liburutegiak antolatuta, Ur Apalategiren “Fikzioaren izterrak” liburuari buruzko solasaldia. Izen-ematea: 943 300 615.
Urriak 28, asteartea.

Musika

Andoain, Bastero

- Chuck Prophet & The Mission Express. AEBtako rock musika.
22:00. 12 euro.
Urriak 31, ostirala.

Tailerra

Andoain, Bastero

- Ane Albisuren eskutik. Gaur egungo festetan jantzien ditugun jantzien sorburua eta bilakaera aztergai. Aurrez izena eman behar da.
18:30. Azaroak 4, asteartea.

Musika

Andoain

- Bitartean taldea.
20:00. Bastero.
Urriak 24, ostirala.

Irteera

Andoain, Ludoteka

- “Larunbatean euskaraz” ekimenekoekin “Irrisarriland” gunera irteera.
Izen-ematea: 943 592 181.
Azaroak 22, larunbata.

Lehiaketak

Andoain

- Andoaindarrak izar talentu lehiaketa, Gazte Lokalaren eskutik. 12-18 urte bitarteko artistei zuzenduta.
Izen-ematea: azaroak 14.
andoain@gaztelokala.com.
- Selfie lehiaketa, #lotsarikgabe etiketarekin. Euskara ardatz hartuta.
andoain@aek.org
677086915
Epea: Urriak 31.
Sari banaketa: Azaroak 14.

Urnietan

- Beldur Barik EAEko instituzioek elkarlanean bultzatuta indarkeria sexista saihesteko gazteei zuzendutako programa da. 12-26 urteko gazteek parte har dezakete: gazteinformazio@urnieta.org

Ludoteka

Urnietan

- Astelehenetik ostegunera Arantzubina. 17:00-19:00.
Azaroaren 6ra arte.
943 008 033.
ludoteka@urnieta.org

Deialdia

Andoain

- Atxularmendiko gotorlekua garbitzeko auzolanerako deia egin du Burdina taldeak, larunbat honetan hasita.
Info: 699 487 683.

Magia

Urnietan, Sarobe

- Txan magoa, “mundu magikoa”. Sarrera: 3,5 euro.
12:00. Urriak 26, igandea.

Ospakizuna

Andoain

- Halloween festa Gazte Lokalean.
20:30 Mozorro afaria, bakoiak berea eramanez.
Urriak 31, ostirala.
17:30 Beldurrezko filma.
Azaroak 1, larunbata.

Bilkura

Andoain

- Andoaingo lehen moto bilkura. Izen-ematea Olajauna tabernan.
09:30 Gosaria Lanbroan.
10:30 Irteera.
14:30 Bazkaria Azkoitian.
19:00 Helmuga Andoainen.
20:00 Kontzertua Olajauran.
Azaroak 8, larunbata.

Sariketa

Andoain

- “Joxe Mari Olazabalen bidea” sari banaketa ekitaldia abenduaren 11n izango da. Herritarrek proposamenak egiteko aukera dute, datoren azaroaren 3ra bitarte. caritasandoain@yahoo.com

Bazkariak

Andoain

- 1959an jaiotakoek deituta, Txertota jatetxean. Azaroaren 12a baino lehen 60 euroko diru sarrera egin behar da Kutxan, eta ordainagiria Urkiolan aurkeztu: 2095 5022 13 1074154237.
14:00 Taldeko argazkia.
14:30 Bazkaria.
Azaroak 15, larunbata.
- 1974an jaiotakoek deituta. 21:00. Oianume.
Azaroak 22, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Lier, urriaren 27an 4 urte beteko dituzu eta izeba Nerea, urriaren 30ean 34 urte. Zorionak eta muxu handi bana biontzat. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Urriaren 21ean 12 urte bete zituen. Jarraitu hain langile eta gozaten futbolakin. Aupa Euskalduna!! Muxu erraldoiak etxean partez.

ANDOAIN

ZORIONAK



Aimar Aizpurua Otaño 2 urte beteko ditu azaroaren 6an. Muxu handi bat Aiara, aitaxo eta amatxo.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRIN

- aiurri.com
- diseinua@aiurri.com
- Aiurriko bulegoetan



Hurrengo Aiurri astekaria azaroaren seitek aurrera

Azaroaren 1etik 2ra doan asteburuan **Aiurri astekaria** ez da argitaratuko. Hurrengo

Aiurri (416 zenbakiduna) azaroaren 6an eta 7an iritsiko da irakurleen eskuetara.

Edergintza tailerra Lekaion

Lekaio Kultur etxean edergintza tailerra antolatu dute, azaroan izango dena. Teorikoa eta praktikoa izango da, talde txikietan eskaintzeko aurreikusia. Ikastaroan azalaren zainketa eta automakillajeari buruzko informazioa eskainiko da. Datozen aza-

roaren 6an eta 13an burutuko da eta parte hartzeko 24 urte beteak izan beharko dira. Ikastaroa doakoa izango da.

Antolatzaileek parte hartzeke deia egin dute. Izena emateko telefono zenbakia: 635 719 950.

“Gomendatzen dizut” gazte lehiaketa Andoainen

Gazte informazio bulegoak “Gomendatzen dizut” lehiaketaren edizio berria martxan jarri du. Herriko gazteei erronka bota diete: “Irteera bat egiten duzutenean, leku buruzko informazio interesgarri askorekin etortzen zarete. Informazio hori gurekin konpartitzea nahiko genuke, gomendio moduan. Guretzat, edozein gomendio baliagarria da, ostatuengurukoak, lekuak, herriak, museoak, natur-guneak, jatetxeak, ekintzak, paisaia ikusgarriak...”. Oinarriak:

- Sariketan Andoainen bizi edo ikasten duten 12-18 urte bitarteko gazteek parte har dezakete.

- Gehienez 3 gomendio aurkeztu daitezke.
- Gomendio bat eman behar da, eta bi arrazoi, zergatik gomendatzen den laburki azalduz.
- Argazki batekin lagunduta joan beharko luke gomendioak.

Irabazlea zozketa bidez aukeratuko dute. Ondoren, gomendio guztien erakusketara egingo dute Gazte Lokalean.

Epea: Urriak 31, ostirala. Saria: Andoaingo denda desberdinetan erosketak egiteko 60 euroko bonoa. Informazio gehiago: gibandoain@gaztelokala.com.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA AZAROAREN 7AN ARGITARATUKO DA